

## LEZO / Bihar ipuin kontaketa izango da liburutegian

**Pello Añorgaren eskutik entzun ahal izango dituzte ipuinak, 18:15etik aurrera**



L. Muguruza

Andreone Udal Liburutegiak Udalarekin batera herriko txikiengana literatur zaletasuna sustatzeko antolatzen dituzten ipuin kontaketen baitan, bihar, Pello Añorga oiartuarra izango da. Emanaldia 18:15ean hasiko da eta Ipuinen jira-biran ipuin bilduma kontatuko du. Gainontzeko ipuin kontaketak bezala, lau eta sei urte arteko haurrentzako izango da. Datorren asteazkenean, berriz, Antton Irusta ipuin kontalariaren txanda izango da, leku eta ordu berean. Irustaren ipuinak ere, lau eta sei urte arteko haurrentzako izango da eta Aseyeren abenturak ipuin bilduma kontatuko die herriko gaztetxoenei.

Udalaren eta liburutegiaren artean antolatutako ekimena abenduaren 12an bukatuko da Korri eta Xalto pailazoen eskutik. Beraz, beste hiru emanaldi izango dira